

JEAN ETCHEPARE. *Mendekoste gereziak eta beste*. "Eskualtzaleen Biltzarra"-ren gerizpean *Goiztiri*-k atherea. Bayona, 1963.

Eun t'emeretzi orrialdeko liburu onek P. Charritton-en aintzin-solasa dakar. Jean Etchepare nor zen eta zelako idazlea zen adieraziz, ta agurrezko oar bat gazterik galdu zen izkiriatzalle oni bere aitak egia.

1960-eko otsallean "Eskual-Kulturaren-Alde" batasunak eratu zuan aurrentzako kondairarik onenari sariketa, ta Etchepare gazteak, artean 22 urte zitularik, irabazi zuen sariketa ori bere *Mendekoste gereziak* ipui politarekin. Andik denbora gutxira, 1961-eko abenduaren 10-ean, il zen gure idazlea, 24 urte juxtu zitularik.

Sarituaren izena aintzat arturik, aurretiko ta geroztiko lanekin egindako bilduma bat da ipui ta azalpenak aurkeztuz.

Lanetatik garbi ikusten da aren begi-kolpe argia: oarle bikañez gañera kezkatu nabari da. Azalpenetan, ezerk igesik egiteke, inguru-minguruak argi ta garbi adieraziz dioa. Maiz, bere pentsamenak metaforaz biribilduz: "Ai nere buruari pentsatu gabe bizi ahal banindadi!". Bere baxenabar euskalkian, ifioiz itanoka, onela mintzo da: "Gizonak ez dezaken bere zoriona senti (zion erbestetik maitemindu, batek bere emaztekiari), ez baitaki zer den zoriona. Bainan gero dun ohartzen, orhitzearekin, atzo memento hura berriz iragan nahi liken. Bizkitartean memento hura berean, zorion mikorik sendi edo atzeman".

Onelakoa da Etchepare zanaren idazmota, onelakoa bere kezka, noizipeinean larrimundurik. Bere orrialdeak barna somatzen ditugun gertaera ta esaerak nekez aitzu genezazke: *Kattalin gorri*, *Donadoa*, *Etxekoak*, *Argi-sirrinta*, *Kurutze gorriak* eta abar, gogoangarri izango dituzte irakurleak.

Ez pentsa denak illunak direnik. Sarri mintzo da itxaropen argiz. Era zabalekoa baita gazte onek utzi digun uzta. "Bihotzean su baten ukaitea aski da, zorionaren ukaiteko". Ta euskera ta Euskalerrria zituan bere biotzeko sua.

Izkuntza, esan degun bezela, Garazi aldekoa da, jatsuarra baitzen. Nobelagintzarako doai bereziak agiri zaizkio orren gazterik galdu genuen idazle bikain oni.

J. S. M.

